



2. topaketak

DONOSTIA
AZAROAK 28-29 2013
**FUNDAMENTALISMO POLITIKO,
EKONOMIKO, ERLIJIOSO ETA
KULTURALEN INPAKTUA SEXU
ETA UGALKETA ESKUBIDEETAN**

**IZEN-EMATEA DOAN
IZANGO DA DATORREN
AZAROAREN 19RA ARTE**
www.porlosderechossexualesyreproductivos.org
HELBIDEAN
PLAZA MUGATUAK!

INFO: 943 40 47 40
educ.gipuzkoa@medicusmundi.es

2. NAZIOARTEKO TOPAKETAK

Fundamentalismo politiko, ekonomikoa, erlijioso eta kulturalen inpaktua Sexu eta Ugalketa Eskubideetan.
2013ko azaroak 28 eta 29.
Donostia (Kutxa Andia Ekitaldi Aretoa. Andia kalea, z/g).

SARRERA

Bigarren Topaketa hauek, egungo testuinguruan bereziki, aukera paregabea dira **fundamentalismo** desberdinek sexu eta ugalketa alorreko eskubideen urraketan gaur egun duten zerikusia aztertu ahal izateko. Gizartearentzako arau moduan **pentsamendu bakarra eta aldaezina** defendatzen duten fundamentalismoak ikusten ditugu kultura, erlijio, ekonomia edo politikaren adierazpide ugaitan eta horren ondorioak kaltegarriak dira oro har giza-kiarentzat eta bereziki emakumearen sexu eta ugalketa alorreko eskubideak gauzatzeko jardunean.

medicusmundi gipuzkoak eta Manuela Ramos Mugimendua (Peru) denboran bereizitako -2011 eta 2013- bi topaketa egitea proposatu zuten behatoki moduan. Horregatik, bigarren topaketa hauetan fundamentalismoei eta horien adierazpen moduan ematen diren modu anitzeko indarkeriei aurre egiteko ditugun **alternatibak aipamen berezia** egin nahiko genuke. Eta hori guztia, baterako ekintza-estrategiak zehazteari begira sexu eta ugalketarako eskubideak eraginkortasunez bermatzeko.

HELBURUAK

- Emakumeen bizitza eta gorputzentzat ondorio guztiz negatiboak dituen **fundamentalismo** desberdinen aurkako borrokara hurbiltzea jendea.
- Sexu eta ugalketarako eskubideen urraketan gertatzen diren errealitate desberdinen **arrazoiak** aztertzea eta horiei aurre egiteko dauden **alternatibak aurkeztea**.
- Itun sendoak egitea Sexu eta Ugalketa alorreko Eskubideen alde lanean ari diren Hego eta Iparreko erakunde eta sareen artean ekintza-politika bateratuak gauzatzeko.

PUBLIKO HARTZAILEA

- Sexu eta ugalketa eskubideen alde lan egiten duten **erakunde eta sareetako** ordezkariak.
- Berdintasuna eta** garapenerako **lankidetzak** alorreko teknikariak.
- Unibertsitateko** ikasleak eta osasun alorreko profesionalak.
- Gai horretan **interesaturik** dagoen pertsona edo erakunde oro.

AZAROAK 28

8.30-9.00
Harrera eta materialen banaketa.

9.00-9.15
Topaketen aurkezpena.

9.15-10.00
INAUGURAZIO-HITZALDIA: EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEAK FUNDAMENTALISMOEN JOMUGAN.
Hizlaria: Marcela Lagarde y de los Ríos. Antropologoa eta feminista. Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Katedraduna.

1 PANELA.
GLOBALIZAZIOA ETA NEOLIBERALISMOA: ERAGINA EMAKUMEEN GORPUTZ ETA SEXUALITATEAN.

10:00-10:45
EMAKUMEAK ETA GORPUTZA MERKATUKO ROLAREN MENDE.
Hizlaria: Silvia Federici. Idazlea, irakaslea eta feminista ekintzailea.

10:45-11:30
MADE BY WOMEN: JANTZIGINTZAREN MUNDU-INDUSTRIA ETA LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDEKO MUGIMENDUA. SINDIKATUEN TESTIGANTZA.
Hizlaria: Evangelina Argueta. Hondurasko CGTko Koordinatzailea.

ATSEDENA 11:30-12:00

12:00-12:45
EMAKUMEEN SALEROSKETA SEXU-ESPLORAZIOARAKO: ESKAERAREN IKUSPEGIA.
Hizlaria: Beatriz Gimeno. Feminista eta idazlea; "La prostitución" liburuaren egilea.

Antolatzaileak:



12:45-13:30
1. PANELAREN EZTABAIDA

2 PANELA.
LAIKOTASUNA, DEMOKRAZIA ETA ERLIJO-FUNDAMENTALISMOAK: EMAKUMEENTZAKO ERRONKAK.

15:00-16:15
ELIZA KATOLIKOA SEXU ETA UGALKETARAKO OSASUNAREN AURREAN: ARRAZOIAK ETA IKUSPEGIAK.
Hizlaria: Jexuxmari Mujika. Donostiako Santo Tomas Lizeoko eta Deustuko Unibertsitateko irakasle ohia. Filosofian Lizentziatua.

16:15-17:00
UDABERRI ARABIARRAK ETA HORIEN ERAGINA EMAKUMEEN SEXU ETA UGALKETARAKO ESKUBIDEETAN. MUGIMENDU FEMINISTA GAUZATZEA ALTERNATIBA BEZALA.
Hizlaria: Wassyla Tamzali. Idazlea eta feminista ekintzaile aljeriarra.

17:00-18:30
MAHAI-INGURUA: ESTATUAREN LAIKOTASUNA EMAKUMEEN ETA LGBT KOLEKTIBOAREN ESKUBIDEEN BERME GISA.

Parte-hartzaileak:
Wassyla Tamzali
Jexuxmari Mujika
María Elena Reyes
GEHITU

AZAROAK 29

3 PANELA.
INDARKERIA MATXISTEN ERA ASKOTAKO ADIERAZPENAK. HORIEI AURKA EGITEKO ESTRATEGIAK.

9:00-10:00
BEHARTUTAKO ESTERILIZAZIOEN POLITIKA PERUN 90EKO HAMARKADAN: GIZATERIAREN AURKAKO DELITUA.
Hizlaria: María Elena Reyes. Manuela Ramos Mugimendua (Peru).

10:00-10:45
ETIOPIA: GIB/HIESAREN FEMINIZAZIOA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZ.
Hizlaria: Tirfu Kidnemariam. Women's Association of Tigrayko lehendakaria (Etiopia)

10:45-11:30
SEXISMOA ETA INDARKERIA MATXISTA GAZTEEN ARTEAN. TEKNOLOGIA BERRIAK KONTROLERAKO ARMA GISA.
Hizlaria: Ianiire Estébanez. Psikologoa eta ziber-ekintzailea. "Mi novio me controla, lo normal" blogaren egilea.

ATSEDENA 11:30-12:00

12:00-12:45
3. PANELAREN EZTABAIDA

AMAIERAKO HITZALDIA:
12:45-13:30
ABORTUA AUKERATU AHAL IZATEA: OSASUN PUBLIKOAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ARAZO BAT.
Hizlaria: Isabel Serrano Fuster. Estatuko Familia Plangintzarako Federazioa eta "Decidir nos hace libres" Plataformako bozeramailea.

MAHAI-INGURUA:
13:30-15:00
HEGOALDEKO ETA IPARRALDEKO EMAKUMEAK: FUNDAMENTALISMOEN MEHATXUAREN AURKA ANTOLATZEN.
Parte-hartzaileak:
Marcela Lagarde.
Pilar Puente, Manuela Ramos Mugimendua.
"Decidir nos hace libres" Plataforma.
Mugarik gabe, GGKE.

Finantzaileak:

